

# **BEZEROEKIKO HARREMANAK**

Enpresak gure bezeroekin izango duen harremana oso garrantzitsua izango da. Pertsonala eta automatizatua baina batez ere harreman automatizatua erabiliko dugu aplikazioaren bitartez komunikatu ahal garelako.

Zerbitzu automatizatua eskainiko dugu gure web orria sortzean, bezeroek beren eskaerak egin ahal izan ditzaten lokalera fisikoki joan behar gabe. Lokal hori, Araban kokatuta egongo da, zehazki Gasteizen. Bulego honen funtzio nagusia, bezeroekin erlazio pertsonalagoa izatea izango da, eta gertu dauden enprekin bilerak egiteko erabiliko dugu. Gainera, sare sozialen kontu desberdinak egingo ditugu (Facebook, Instagram, Twitter), gaur egun gehien erabiltzen direnak dira. Uste dugu horrela azkar ezagutaraziko dugula elkar.



Gure asmoa egoera berean dauden gurasoen komunitatea osatzea da, esperientziak parteka ditzaten. Hauek, aplikazioaren bitartez komunikatu daitezke.

Ekintza hauek egingo ditugu bezeroa gurekin lotuta egon dadin:

- 30 eurotik gorako erosketak egiten duten bezero guztiek % 20ko deskontua izango dute hurrengo erosketan.
- E-mailak bidaliko ditugu berriez jakinarazteko, gure sare sozialetan argitaratzeaz gain.
- Hilabete bakoitzeko lehen larunbatean, zenbait produktuetan beherapenak egongo dira, familia gehiagok eskura ditzaten produktu horiek.
- Aplikazioan foru bat egongo da, bezeroek galderak egiteko. Modu honetan, arreta pertsonalizatu bat emango diegu eta aukera izango dute gurekin kontaktatzeko.

